

VITAL FUNDAZIOAREN EMAKUMEZKOEN FUTBOL TXAPELKETEN OINARRIAK

- 1. Antolatzailea:** Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, emakumezkoen kirola sustatzeko Araban duen programaren barruko ekimena.
- 2. Helburua:** Gasteizen eta Araban emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean. Emakumezkoen kirola sustatzea ez soilik eskolaz kanpoko jarduera moduan, baizik eta lanerako irtenbide izan daitekeen moduan, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.
- 3. Kategoriak eta adinak:** Taldeak 9 eta 16 urte arteko neskez osatuak izan behar dute oso-osorik. Hauek izango dira kategoriak: Benjaminak, 2008-2009an jaiotakoak; Alebinak, 2006-2007an jaiotakoak; Infantilak, 2004-2005ean jaiotakoak, eta Kadeteak, 2002-2003an jaiotakoak. Onartu egingo da jokalaria bat, bere adinaren arabera, dagokion maila baino hurrengo goragoko mailan dagoen talde batean sartzea. Ez da onartuko alderantzizko kasurik, hau da, jokalaria batek adinez dagokion maila baino beheragoko mailan batean jokatzea.*

*Kasu jakinen batean antolakuntzak kontrakoa erabakitakoa izan ezik.

- 4. Jokalekua:** Txapelketa bakoitzerako antolatzaileek seinalatzen dituzten ezaugarriez markaturikoa izango da. Horiek txapelketa bakoitzerako erabiltzen diren edo prestatzen diren instalazioen arabera egongo dira markatuak: Estadio Fundazioaren Kirol Instalazioak, Plaza Berria eta abar.

5. Osasun estaldura: Txapelketaren eta ekitaldia egingo den instalazioaren antolatzaileek ez dute beren gain hartuko parte-hartzaileen egoera fisikoaren ardurarik, ezta lesio baten kasuan gerta litekeenarenik ere.

6. Izen emateak: Izen emateak parte hartzeko izena eman duten txapelketaren arabera aldatuko dira:

→ **Izena emateko egunak, Plaza Berria Txapelketa (2018/4/22):** apirilaren 6tik 19ra.

Talde bakoitza 3 pertsonaz + 1 ordezkioaz osatuta egongo da, hau da, taldeko 4 pertsona guztira. Izena emateko fitxa bete beharko dute:

- Taldearen izena.
- Partaideen izena eta abizenak.
- Kategoria
- Harremanetarako, ordezkariaren telefonoa edo posta elektronikoa.

Izen ematea programaren web-orriaren bidez egingo da.

7. Lehiaketaren arauak:

- Jokalekua: mugaturik egongo da, 16 x 8 m-tako zelai baten instalazioez edo, halakorik ezean, ezaugarri bertsuko hesiez.
- Iraupena: 10 minutu etengabeak.
- Taldeko jokalaria kopurua: 3 jokalaria + 1 ordezkioa.
- Jokalariak jokorako arropa egokiak jantziko dituzte.
- Antolakuntzak emango dizkie jokalariei lehiaketan erabiltzeko petoak.
- Jokalariak entrenatzaile bat izango dute aholkuak emateko, jokaldiez, estrategiez eta abarrez.
- Erdiko sarea: partidari hasiera emateko eta gol bakoitza sartu ondoren egingo da.

- Ez dago atezain figurarik, hortaz, jokalaria batek ere ezingo du baloia eskuaz ukitu; ukitzen bada faltatzat hartuko da eta talde aurkariarentzat izango da sakea.
 - Alboko edo ateko sakea: oinaz egingo da.
 - Penaltia: aurkariaren ateko marratik 1 m-ra kokatuko da eta atezainik gabe egingo da. Penaltiaz zigortuko da, baldin eta baloia eskuaz ukitzen bada, zoruaren arrasetik sartzen bada edo jokalariaren falta argia denean. Jokalariak ekintza horiek 3 aldiz baino gehiagotan egiten baditu, partidatik bota egingo da, lagun batek ordezkaria dezan.
 - Partida guztietan epaile arbitro bat egongo da eta haren erabakiak apelaezinak izango dira.
 - Puntuazioa: gol gehiena sartzen dituen taldea izango da partidaren irabazlea. Partida berdinketan amaituko balitz, 3 botaldiko penalti txandak hasiko dira, lehenik huts egiten duen taldeak galduko du.
 - Jokalariak ordezkoekin noiznahi txanda daitezke, baldin eta beti hiru jokalaria badaude jokalekuan.
 - Antolakuntzak markatuko ditu partiden ordutegiak.
 - Antolakuntzak eta bere diziplina batzordeak beretzat gordetzen du araudia betetzen ez duten jokalariak edo taldeak botatzeko eskubidea.
- 8. Sariak:** parte-hartzaile guztiei motxila bat, edari isotermikoa eta programaren kamiseta bat oparituko zaie. Gainera, txapelketaren irabazleek baloi bat eta domina bat jasoko dute.